

ZINE LEKU

ZARAUTZ 2016

ZARAUTZ

2016KO UZTAILAREN 23TIK ABUZTUAREN 1ERA
DEL 23 DE JULIO AL 1 DE AGOSTO DE 2016

HITZALDIAK ETA PROIEKZIOAK

Jardunaldi bakoitza amaitzean, hainbat jarduera izango dira denentzat irekiak, besteak beste, hitzaldiak zinema eta literaturari, zinema dokumentalari edo interpretazioari buruz, proiektzioak, performanceak eta kontzertuak. **Fermin Muguruza, Katixa Agirre, Jose Mari Goenaga, Idoia Zabaleta** eta **José Luis Rebordinos**.



PELIKULA TXAR BAT LIBURU ON BATETIK (ETA ALDERANTZIZ)

KATIXA AGIRRE, idazlea

Uztailak 23 · 19:00

Etxezabala

HITZALDIA (Euskaraz)

Zinema eta literatura elkar ulertzeko jaio ziren, milaka urteko aldearekin jaio arren. Hala ere, bien arteko harremanak ez dira beti harmoniatsuak izan, batzuetan desastrosoak ere badira. Medio bakoitzaren berezitasunek, industriaren logikak, irakurlearen aurreiritziek eta ikuslearen espektatibek... horiek guztiek sentazio ohiko batera garamatzate, alegia, liburua gehiago gustatu zitzaigunaren sentazioa (edo kontrakoa). Adaptazioaren historiaren errepaso labur bat, arrakasta eta porrot kasuez betea.



JOHN FROM

JOAO NICOLAU. Portugal. 2015. 98 min.

Uztailak 23 · 22:00

Zarauzko Malekoia

PROIEKZIOA (Portuges, azpigituluak gaztelaniaz)

Rita eta Sara mezu ezkutuetan bidaliz, gizarte-etxe-ko organoa joz eta leku batetik bestera paseatuz udara igarotzen duten bi nerabe dira. Egun horietako batean Hego itsasoei buruzko erakusketa batekin topo egin dute beraien bizitzak palmondoz, ukelelez eta mozorro-tribalez beteriko agertokia bilakatu arte. Maitasunaren eta amets-irudiaren, kolorearen eta abenturen denboraldia ere izango da.



SIGO SIENDO

JAVIER CORCUERA. Peru. 2013. 123 min.

Musika dokumentala

Uztailak 24 · 18:00

Modelo Zinema

Javier Corcuera dokumental errealizadorearekin ELKARRIZKETA eta *Sigo Siendo* bere azken filmaren PROIEKZIOA (Gaztelaniaz, azpigituluak ingelesez).

Kachkaniraqmi, "izaten jarraitzen dut, oraindik banaiz" adierazi nahi duen esamolde Quechua/Kitxua da. Filma, Peruko hiru eskualde ezezagun eta ezkutuko handitan barrena doan musika-ibilbide ikusgarria da: Ayacucho (Andeetako zonaldea), Amazonia (oihana) eta Kostaldea (Lima, hiria), berezko hizkuntzan kantatzen eta gitarra nahiz biolina, harpa eta kaxa jotzeko modu berezia mantentzen dutenen istorioak kontatuz eta nortzuk diren agerian utziz.



FOTOGRAMAS DE REPENTE CUANDO YA ESTABA EN LA CAMA

PERE GINARD. Catalunya.

Uztailak 24 · 22:00

Zarauzko Malekoia

PROIEKZIOA. Animaziozko pelikula (Gaztelaniaz). Pere Ginard-ek saioa aurkeztuko du.

Korridore fantasmagoriak, hozkailu atzeko irudipenak, erremediorik gabeko maitemina eta kartoizko gihartsuak. Pere Ginard-en animazio espektraleko eta found-footage-aren bidezko erakustaldia.



GESTIÓN DE ESPACIOS CULTURALES ALTERNATIVOS, INDEPENDIENTES O COMO SE LLAMEN

Uztailak 25 · 19:00

Etxezabala

SOLASALDIA (Gaztelaniaz)

Kudeatzaile desberdinak eta espazio alternatiboen programatzaileak gonbidatuko ditugu saio honetara, euren proiektuen esperientziak parteka ditzaten.



VIOLA

MATÍAS PIÑEIRO. Argentina. 2012. 65 min.

Uztailak 25 · 22:00

Modelo Zinema

PROIEKZIOA (Gaztelaniaz). Matías Piñeiro zuzendariak bideo konferentziak aurkeztuko du.

Ceciliak William Shakespeare-ren Erregeen Gaua komedia entseatzuz igarotzen ditu egunak. Violak bitartean, handik hona bere bizikleta gainean piraateatutako filmak sakabanatzen igarotzen ditu egunak. Desira teoria desberdinen artean, amets, bertso eta emakume Shakespeare-arren fikzioen artean murgildutako munduan, misterioak ez dira ebazten, baina maitasuna geldiezin dabil.



MORIARTI PRODUKZIOAK EDO TALDEKO AUTORETZA

JOSE MARI GOENAGA

Uztailak 26 · 19:00

Modelo Zinema

HITZALDIA (Euskaraz)

Jose Mari Goenaga zinemagileak Moriarti produkzioak nola egiten duen lan partekatuko du gurekin: Jon Garaño, Aitor Arregi, Jorge Gil, Xabier Berzosa, Asier Acha eta Goenagak berak osatzen dute ekoiztetxe hau.



LOREAK

JON GARAÑO, JOSE MARI GOENAGA. Euskal Herria. 2014. 99 min.

Uztailak 26 · 22:00

Zarauzko Malekoia

PROIEKZIOA (Euskaraz). Jose Mari Goenagak filma aurkeztuko du.

Hiru emakumeren istorioa da hau; lore-sorta xume batzuek goitik-behera aldatuko dituzten hiru bizi-modu. Lore horiek ahaztutzat zituzten sentimenduak azaleratuko dituzte. Baina, azken batean, loreak baino ez dira. Donostiako Nazioarteko Zinemaldian estreinatu zen, sail ofizialeko lehiaketan. Goya sarietarako izendatua eta Oscar sarietarako urre-hautagai izan zen.



KOPIATU PELIKULA HAU! KULTURA LIBRE ETA IKUSENTZUNEZKO EKOIZPENA

NATXO RODRIGUEZ, EHuko irakaslea

Uztailak 27 · 19:00

Etxezabala

HITZALDIA (Euskaraz)

Ikusentzunezko produkzioaren ekoizpen, hedapen eta sarbidea testuinguru digital berrian, egilearen eskubideei eta jabetza intelektualari buruzko eztabaidaren ikuspuntutik. Copyleft eta Creative Commons direlakoak aztertuko ditugu, hala nola, euren ekarpen kontzeptualak, politikak eta didaktikoak.



LEHENENGO ALDIA: ZINEMA HISTORIATIK BIDAIA MUSIKALA

Uztailak 27 - 22:00

Zarauzko Malekoa

PROIEKZIOA (Euskaraz). Garbiñe Ortegak aurkeztuko du.

Bere izena Juris da eta ez du sekula filmarik ikusi, gaur arte... Kuriositatea, zirrara eta hipnosia. Berekin batera, zinema gure baitan jaioko da berriro. Zinema dokumental, esperimental, eta animaziozko perla ahaztuak ikusiko ditugu: Charles Chaplinen komediatik Jeff Scher artistaren lan musikaletara. Familia osoarekin ikusteko moduko programa!



MUSIKA ETA DOKUMENTALAREN ARTEKO HARREMANA

FERMIN MUGURUZA

Uztailak 31 - 19:00

Modelo Zinema

SOLASALDIA (Euskaraz)

Fermin Muguruza musikari, ekoizle eta dokumental zuzendaria da. Azken urteotan musika mundutik aldentuta, zinemagintzan aritu izan da. *Checkpoint Rock*, *Bass-que Culture*, Al-Jazeera telebista katean Next Music Station saioa, Zuloak eta No More Tour ikusentzunezko egitasmoak gauzatu ditu. No More Tour-ek munduan barrena topatutako erresistentzia eta konplizitatez osatutako mapa marrazten du. Fermin Muguruzarekin arituko gara zinemagintzan egin dituen lanen inguruan.



AYOTZINAPA 26

Film kolektiboa. Mexiko. 2016. 100 min.

Uztailak 28 - 22:00

Modelo Zinema

PROIEKZIOA (Gaztelaniaz). Ricardo del Conde, zuzendari mexikarrenetariko batek aurkeztuko du filma. Amnistia Internacional-en lankidetzarekin aurkeztuta.

Ayotzinapa 26, herrialde ezberdinetako (Mexiko, Argentina, Frantzia, Brasil eta Belgika, esaterako) 26 zinemagile, artista kontzeptual eta ilustratzaileen laburmetraiak biltzen dituen filma da. Egia aurkitzeko eskea, eta Ayotzinapako 43 ikasleentzat eta desagertutako 27.000 pertsonentzat justizia lortzeko deia darra.



THE FARRA MARCHING BAND

Uztailak 31 - 21:00

Plaza Nagusia

KALEJIRA

Talde handi baten indarra eta erritmoa darabiltzan *brass band* txikia. Dibertsioa, dantza eta publikoarekin hartu emana... Ziurtatuta!



JOSÉ LUIS REBORDINOS

Donostiako Zinemaldiko zuzendaria

Uztailak 30 - 17:30

Modelo Zinema

SOLASALDIA (Gaztelaniaz)

Zinemaldiko zuzendaria gurekin arituko da jaialdiaren gainean; programazioa nola lantzen den, urtero ze nolako erronkak aurkitzen dituzten eta hain zabala nahiz ospe handiko zinemaldi baten publiko anitzak nola eraikitzen diren ezagutzeko aukera izango dugularik.



NOLA? + ZINELEKUKO PARTAIDEEN LANEN PROIEKZIO BEREZIA!

FERMIN MUGURUZA. Euskal Herria. 2015. 65 min. Musika dokumentala.

Uztailak 31 - 22:00

Zarauzko Malekoa

PROIEKZIOA (Ingelesez eta azpitoluak euskaraz). Fermin Muguruzak filma aurkeztuko du.

Pelikularen ardatz nagusia George Ingmire da (WWOZko esataria, dokumentalista eta urakanak izan zuen eraginaren inguruko hainbat irratsaioren aurkezlea). Bere diskurtso kritiko eta ironikoarekin, diskoaren grabazioaren kontakizuna, gauzen egoeraren inguruko gogoetekin tartekatzen du.